

Goierriarra

295. zenbakia 2006ko otsailak 10



Oiangu Pilota
Elkartea

BASERRIA GAZTETZEN



Orain Zaldibian

Elbarrena industrialdean

Tel.: 943 888 232




Gipuzkoako mozerro dendarik handiena



BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

BERÓGAR



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK

WENT

ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal

ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:3204

BERTSOTAN

Enpresak euskalduntzen



Iñaki Apalategi

Gure enpresek beste behin ere nolako borondatea! euskara planak hitzartu eta urtetarako pakea zein erraza den modu horretan aurpegia ematea baina suertatuz gero lanean norbait behar izatea derrigorrean eskatzen dute ingeleraz jakitea derrigortasun horren falta da gure hizkuntzaren katea erabakitzen ez den artean hor pausorik ematea beti itxita edukiko du enpresetako atea.

Soziala den marketin horrek sortzen du hainbat ondoez ekintza onen eskutik beti baitoaz mila interes nahiz badakiten gauzak egiten ari direla aldrebes era horretan dirulaguntzak lortu ditzakete legez sinadura bat botata ez da hizkuntza berpizten berez ta ezta ere dirua jarri eta magiaren artez euskera lantzen duen enpresak bakarrik planen bitartez Irudi ona edukiko du Baina itxura onik ez.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 643

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Azaleko argazkia: Arkaitz Apalategi.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Idurre Eskisabel
5. **Ingurugiro txokoa:** Eski estazioek eragindako zauri ekologikoa
6. **Errezeta:** Zapo eta otarrainxka brotxeta
Aholkua: Emozioak trebetasunez hezitzeko jarraibideak
7. **Kate motzean:** Jon Urdangarin
8. **Elkarrizketa:** Lanean Ordiziako enpresak euskalduntzen
12. **Erreportajea:** GazteNek
16. **Elkarrizketa:** Oiangu Pilota Elkartea
20. **Gazteleku:** Beasaingo idazlan sariketa.
22. **Agenda.**
24. **Debaldeko iragarkiak.**
26. **Argazki zaharra.**


Goierritarra Goierritarra kanpo jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro
Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta
Zeraingo udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Idurre Eskisabel

Amontzen

Lagun batzuek esaten didate amontzen hasita nagoela. Alegia, “akordatzen al zarete halakorekin?”, “gogoratzen zer egin genuen halakotan?”, “orain dela hamabost urte halakok zera egin zuen”, eta antzerakoak gero eta maizago esaten ditudala.

Eta, nago, atzera begiratzea bada amontzearen ezaugarria arrazoi guztia dutela. Aitor dezadan: atzera begiratzeko joera dut; areago, gustuko dut eta terapeutikoa zait. Azken batean, hainbesteko ziztuan ibilarazten gaituen bizimoduari aurre egiteko lasaigarria eta indargarria zait joandakoa gogoan eusteko ariketa egitea. Norbait naizenaren eta garenaren sentsazioa ematen dit. Arima nostalgikoa dut nonbait.

Gainera, atzera begira jartzen naizen bakoitzean harritu egiten naiz. Harritu, esate baterako, Beasaini begira jarrita, oharkabean zenbat aldatu den (garen) jabetuta. Adibidez, duela gutxi kontatu nion kanpotik etorritako lagun bati nola Lizeo Zaharrean ibiltzen ginenean esnezaleen astoak egoten ziren orain Ganbo, lehenago Iratxo eta sasoi hartan Sunday izena zuen dantzalekuaren ondoko barandilara lotuta. Esan niona entzun eta gero aurpegi xelebrea jarrita begiratu zidan: erabat amontzen ez ezik burua galtzen ari bantintz bezala. Hasieran ez zidan sinetsi, baina handik piska batera, bera ere memoriaren zakua arakatzeko hasi zenean ohartu zen bere herrian berak ere ezagutu zituela astoak kalean, bizikleta, motor, motokarro eta autoekin batera.

Orain 25-30 urteko kontuak dira horiek, baina ez dago hainbeste atzera egin beharrik aldaketen arrastoak sumatzeko. Azken 10 urteetan ere hainbeste aldatu dira gauzak! Zenbat etxe berri, eta nolakoak; zenbat denda berri, eta nolakoak; zenbat auto berri, eta nolakoak. Paisaia fisikoa ikaragarri aldatu da, baina horiek guztiak aldaketa sakonagoen azaleko zantzuak baino ez dira. Azken batean, bizimodua aldatu zaigu: itxura batean, aberatsago gara diru eta ondasun materialetan, nekazari eremuko bizitzeko moldearen arrastoak ezabatu ditugu, diru-trukeko lanean produktiboagoak gara, eta kale bizitzako zein astialdiko ohiturak irauli ditugu.

Arestian esan dut arima nostalgikoa dudala. Eta egia da zentzu batean, baina nolabait esatearren, nostalgia arina da nirena. Hau da, ez dut pentsatzen nostalgiko peto-petoek bezala joandako garai guztiak oraingoak baino hobekak izan zirenik. Iruditzen zait egun daukaguna geuk sortutakoa dela —geuk erabakita edo besteiei erabakitzen utziz (baina, finean, biak dira erabaki)—, eta jokaleku horretan bizi behar dugula. Baina jokaleku jakin honetan bizitzeak ez du esan nahi gustuko ez badugu onartu behar dugunik. Aitzitik, etorkizunerako jokaleku hobekak asmatzea eta haietara iristeko bideak jartzea errealismo ariketa bikaina iruditzen zait, nahiz eta pragmatismotik oso urrun egon, eta sarri pragmatismoa eta errealismoa nahasten diren arren. Hankak lurrean bai, baina utopia buruan.

Eta horretarako, ezinbestekoa da atzera bezalaxe aurrera begiratzea. Begirada luzea bota behar da, gainera, etorkizunera, unean uneko interes eta komenientziak gaindituko dituen. Irudipena daukat, ordea, gure agintariek bista motz samarra dutela aurrera begirako horretan, eta nahiago diotela epe ertainean errentagarri zaigunari, zaienari, erreparatu etorkizun hobe baten proiektuari baino: dela azpiegituretan, dela hizkuntz politikan, kultur politikan, ongizatean, eta, orokorrean, herrigintzan.

Nahiago nuke erratuta egon, eta hemendik 25 urtera atzera begiratzeko aukera izanez gero joandako garaiak hobekak zirela ez pentsatzea.

Duela gutxi kontatu nion kanpotik etorritako lagun bati nola Lizeo Zaharrean ibiltzen ginenean esnezaleen astoak egoten ziren orain Ganbo, lehenago Iratxo eta sasoi hartan Sunday izena zuen dantzalekuaren ondoko barandilara lotuta.

Eski estazioek eragindako zauri ekologikoa

Eski denboraldian milaka lagun hurbiltzen dira eski guneetara naturaz gozatzeko. Gozatu bai, baina errespetatzen al da? "Ecologistas en acción" taldeak argitaratutako txosten batek dioenez, eski pisten eraikitzeak naturari kalte ugari sortzen dizkio.

Lanak mendieta

Eskiatzaileak ibiltzen diren epe laburrean, eski pistak eraikitzeko egin diren zuhaitz mozketak eta lur mugimenduak ez dira ikusten. Baina elurra urtu eta gero, agerian geratzen dira hondeamakinek lurtean egindako zauriak: pistak handitzeko lanak, teleaulkien egiturak kokatzeko lanak, aldapa berrien sorrera, etab.

Bestalde, eski guneen eraikitzeak beste arazo ekologiko bat dakar: mendi garaiak urbanizatzea. Bezera-ak erakartzearren, sustatzailerik pistetatik geroz eta hurbilago eraikitzen dituzte hotel, apartamentu edo aisialdirako eraikinak, baita aparkalekuak ere. Honek, inpaktu ekologiko handia du, alde batetik urbanistikoki, hiri handiak eraikitzen direlako gune natural oso delikatueta, eta bestetik, hiri batek sortzen duen kutsadura eta zarata mendiak pairatzen duelako.



Formigaleko eski estazioa neguan eta udan.

Elur artifiziala

Baina azken urteetan kezka handiena sortu duen elementua elur artifiziala sortzeko makinak dira. 90.eko hamarkadan egon zen elur eskasiak bultzatuta, gaur egungo eski estazio gehienetan daude. Makina hauek energia eta ur kantitate handia behar dute elurra sortzeko. Ura ibai sorburuetatik hartzen dutenez, ibaiaren zikloan kalte handiak eragiten dituzte. Gainera mekanismo hauek zarata handia sortzen dute eta instalakuntza obra handiak behar dituzte. Tamalez, inbertsio eta inpaktu hau ez da batera eraginkorra suertatu.

Gune naturaletan kalteak

Neguko kirol gune ugari parke natural babestuetan

edo hauetatik oso gertu kokaturik daude. Administrazio autonomiko batzuek gune naturalei babeska ukatu izan diete eski pistak eraiki edo handitu ahal izateko. Parke naturaletako oreka ekologikoa oso delikatueta izan ohi da eta mota honetako turismoak ez dio mesederik egiten. Gainera, elur eskasia dela eta, eski guneak geroz eta altuera handiagoan kokatzeko joera dago eta honek paisaia kaltetu besterik ez du egiten.

Larriena abian dauden proiektu berriak dira: Aragoi bereziki, baina baita Nafarroa, Gaztela eta León edota Andaluziako pista berrien eraikitze edo handitzea.

Miraria

Proiektu berriak bideratzen diren bitartean, natura eta mendiak babestea oraindik posible da. Madrilgo Valcotos estazioa orain urte gutxi desmuntatu zuten La Cumbre eta Las Lagunas de Peñalarako Parke Naturala berreskuratzeko, eski estazioa parkearen barruan eraikia baitzegoen. Gertakizun hau ekologista, zientzialari eta mendizaleen presioak piztutako eztabaida baten emaitza izan zen. Adibide honek oraindik zerbait egin dezakegula erakusten du.

Informazioa

Informazio honen jatorria "www.enredate.org con unicef" web orria da.

Arantxa Bodego

JAKIN BEHARREKOAK

Ibilandia Oiangura: Oianguko anfibio eta narastietaz, Aranzadiko "Ornodunen eta Botanika saileko" ikerlariekin, larunbatean, otsailaren 18an, goizeko 10:30etan, Ordiziako Altamira auzotik (Txola edaritegiaren aurretik). Antolatzailea: Oiangu Publikoa eta Bizirik Plataforma.

Mahaingurua: Nekazari-tza tradizionala-Nekazari-tza ekologikoa. Aitor Aranburu (EHNEKO partaidea eta Xabi Akizu baserritarra. Otsailak 22, asteazkena, 19:00etan, Ordiziako Barrena Kultur Etxean.

Bisitaldia: Aldaba Zahar baserrira (Aldaba) produktore ekologikoa: ahuntzak, gazta, esnea eta ogia. Otsailak 25, larunbata, goizeko 9,30etan, Goierriko Baratz denda-tik, Ordizian. Izena ematea beharrezkoa, telefonoz: 943-087498 edo dendan bertan.

Ordiziako futbol zelaiko zuhaitz gehienak mozturik. Futbolzelaiko obrak hasi direnetik, zuhaitz de-xente moztu dituzte eta geratzen direnak babesik gabe aurkitzen dira. Obrak egin aurretik, zuhaitzak babesteko neurriak noiz hasiko dira har-tzen?

Ura ibai sorburuetatik hartzen dutenez, ibaiaren zikloan kalte handiak eragiten dituzte.

SUKALDEAN

Zapo eta otarrainxka brotxeta



Iban Mate
Dolarea jatetxea
Beasain

Osagaiak:

- Zapo
- Otarrainxkak (langostinoak)
- Tipula
- Cherry tomateak
- Piper berdeak

Tipula eta piper berdea puska handietan mozten dira. Beharrezkoa ez bada ere aurretik zartagi batetan pixka bat gorritzea gomendatzen da.

Zapoa tipula eta piper berde zatien neurri berdinean moztu behar da.

Osagai guztiak ziritetan sartzen dira banaka eta beti ordena berdinean. Ziri bakoitzean gutxienez osagai guztien bina sail jarriko ditugu.

Ondoren brotxeta planxta batean edo labean egin liteke.

Zuzenketa:

Aurreko aleko errezeta (porru eta ganba hojaldrea, marisko saltsarekin) Etxe Zuri sagardotegiko Garbiñe Garmendiak emana zen.

Emozioak trebetasunez hezitzeko jarraibideak

AHOLKUA

Beraien seme-alabentzat zer nahi duten galdetuz gero, gurasoen erantzunik ohikoenak “zoriontsuak izan daitezela” edo “ez dezatela deusen faltarik izan” dira. Baina materiala ez da guztia, oso garrantzitsua da beraien emozioak manejatzen erakustea, honela pertsona libre eta arduratsuak izaten ikas dezaten.

Zer egin

● Haurraren portaerari arreta jarri, normaletik kanpo dauden jokabideak antzemateko. Adibidez, lo ondo ez egitea edo oso ixilik egotea...

● Nola sentitzen den adierazten lagundu. Lagundu ahal diozu adibideak jarritz: “Ni pozik nago, eta zu?” Bere sentimenduak lehen pertsonan adierazten erakutsi, hau da, “urduri nago” eta ez “urduri jarri nauzu”.

● Bere sentimendua adierazteko modua ez bada egokiena, hori adierazteko beste moduren bat erakutsi. Adibidez, “normala da urduri egotea, baina horregatik ez duzu lurrean ostikorik jo behar”.

● Bere emozioak bideratzen lagundu, jokuen, pasioen eta gisako jardueren bidez.

Zer ez egin

● Ez zaie arazoei garrantzirik kendu behar, “ez da horrenbestera” edo “hori tontakeria da” bezalako esaldiekin, beretzat garrantzitsua izan baitaiteke.

● Oihua edo mehatxuak ez erabili, haurrak portaera jakin bat izan ez dezan.

● Emozioak ez debekatu. Blokeo emozional baten arrazoiak izan daiteke.

● Ez erabil “mutilek ez dute negarrik egiten” bezalako esaldiak, komentario hauek sexistak baitira eta haurra blokeatu edo gutxiago dela sentitzera iritsi daiteke.



Raquel Amigo
Psikologoa eta
psikomotrizista

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



“Konputagailu bidez islatzen dugun nortasuna eta benetakoa ez da beti bera”

Hainbeste kilometrora euskara irakastea erraza al da?

Ez, baina uste baino askoz emaitza hobekiak lortzen ari gara. Konputagailu bidez ikasteak baditu abantailak eta desabantailak: Edonon eta edonoiz ikas daiteke, askatasun handia ematen dizu, baina bakardadea ere handia da batzuetan. Harreman pertsonalari eustea da gakoa eta guk, zorionez, bai banaka bai taldean oso harreman estua dugu. Barnetegia ere ezinbestekoa da horretarako: alde gizatiar hori eta mintzamina lantzeko. Irakaskuntza birtuala deitzen zaion honek bilgunea, internet, du birtuala guretzat, bestela oso harreman polita eta gozoa dugu denok.

Eta ikastea?

Nik uste dut irakastea baino zailagoa dela. Aurrez aurrekoan ere, ikasiko bada, ahalegina ikasleek egin behar du eta hemen gehiago. Nolanahi ere, ikasleek aurretik ezagutzen dute elkar eta motibazio handia dute. Hiru urteko egitasmoa da eta gure ikasleak Argentinako euskal etxeetan euskara-irakasle izateko prestatzen ari dira. Gaur egun batzuk irakasleak dira. Gutxiago dakitenekin trebatzen dira eta hori bera ere ez da sistema txarra ikasteko.

Hainbeste denboran internet hutsezko harremana izan ondoren, aurrez aurre ikusteak berezia izango da.

Bai, oso berezia. Aurten iazko barnetegitik elkar ezagutzen genuenez, harremana izugarri sakondu dugu, hurrengo ikasturteari begira ere izugarri laguntzen du aurrez aurre ezagutzeak. Konputagailu bidez islatzen dugun nortasuna eta benetakoa ez da beti bera eta ondo etortzen da nolakoak garen ezagutzeko. Iazkoa askoz gogorragoa izan zen. Ikasle asko izenez bakarrik ezagutzen nituen eta haiekin elkartzea oso zirrargarria izan zen.

Argentinan, nolako jendea ari da euskara ikasten?

Gehienak gazteak dira, baina badira jubilatuak ere. Zehatz-mehatz ez dakit zenbat jende arituko den, akaso 800 bat lagun. Gure programan 40 bat dira irakasletarako prestatzen ari direnak. Euskal Etxeetan dantza taldeek indar handia dute eta orain hamabost bat urte hasi ziren euskara lantzen.

Zein helbururekin ari dira euskara ikasten?

Beren ikas prozesua bukatzean irakasle izango dira. Hemen gosegarren urratsera iritsitakoan euskalduntzat jo-

tzen dituzte. Interneteko kurtsoez gain, bi barnetegi eta bi jardunaldi pedagogiko egiten dituzte urtean. Gehienek oso bidaia luzeak egin behar izaten dituzte horietara joateko. Gainera, beren arbasoen hizkuntza jakiteak garrantzi handia du haientzat. Aitonak edo amonak esaten zien hitz bat ikastea oso pozik izaten dira, adibidez.

Jatorriz euskaldunak al dira?

Denak Argentinan eta Uruguaienjaioak dira, arbaso euskaldunak dituztenak. Batzuek bi adarretatik dituzte arbaso euskaldunak; beste asko, berriz, euskaldun eta italiarren ondorengoak dira. Dena den, oso euskalduntzat dute beren burua eta oso idealizatuak dute Euskal Herria. Euskal kanta asko ezagutzen dituzte, batzuek lauburua dute tatuatuta...

Non dago Tandil? Nolako da?

Buenos Aires probintzian dago; hiriburutik 370 kilometro-ra. Panpako ordeka pasa ondoren, mendilerro txiki batzuk ditu ondoan. 170.000 lagun bizi dira bertan. Oso herri lasaia da eta, itsasorik ez badu ere, argentinaren askoren opor lekua da. Aisialdirako zerbitzu asko ditu eta urtegi baten inguruan oso paraje politak.

Euskaldunak zer moduz hartzen dituzte?

Tandilen bertan bada euskal etxea. 200 bazkide inguru ditu eta urtean zehar antolatu ohi dituzte ekintza gehiago. Euskaldunak, oro har, ondo ikusiak daude.

Gitarra lagun izan al duzu bidaian?

Bai, kanta asko dakite eta gau askotan aritzen ginen kantuan. Gainera, Canal Vascon Euskal Kanturik Onena botatzen zuten eta egun batean ni irten nintzen saio bat ikusi genuen. Hotelekoen harridura! Hurrengoan taldekoekin joan beharko dut! A! Eta beste bitxikeria bat: Hegazkinean, Buenos Aires bidean, 'Aupa Etxebeste' filma jarri zigituen.

Argentinatik gehiena gustatzen zaizuna:

Jendearen etorria, jendearen lasaitasuna, umorea, haragia eta lurraren handitasuna. Buenos Airesko liburu-dendak ere asko gustatzen zaizkit.

Eta gutxiena:

Egoera ekonomikoa. Buenos Airesa iritsi nintzen lehenengoan ikusitako pobreak hunkitu egin ninduen. Zenbaitean abertzalegiak ez ote diren susmoa daukat.

Lanean, Ordiziako enpresak euskalduntzen



Ordiziako Udala, Elhuyar Aholkularitzarekin batera, Ordiziako enpresak euskalduntzeko plana garatzen ari dira. Iaz hasita, 10 enpresa ari da. Aurtengorako, beste hainbeste berri ere planean sartzea aurreikusten da. Lan mundua euskalduntzea esparru estrategikoa dela ar-

gudiatuz, Udalak berak abiatu du plana. Goierrin, era honetako lehenengo plana da Ordiziakoa. Elhuyar da planaren koordinatzailea eta Elhuyarreko Ana Labakak eman digu planaren nondik norakoaren berri. Hainbat enpresek ere, beraien esperientzia eta iritzia azaldu digute.

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoena

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Pagosa okindegia

Karmen Irastorzak azaldu digunez, ondo hartu zuten Udaletik eta Elhuyarretik egindako euskara planaren proposamena. "Langile gehienak euskaldunak gara, 35tik 4k bakarrik ez dute euskararik jakingo, eta guk asko erabiltzen dugu euskara eguneroko ahozko harremanetan. Dena den, dokumentu eta paper aldetik, ikusten genuen guztia gazteleraz geneukala. Horregatik animatu gara euskara planean sartzera", dio Karmen Irastorzak.

Urte berriarekin batera prezio aldatetak-eta izaten direnez, orduan aprobetxatu dituzte paperak euskalduntzeko.



Karmen Irastorza eta Bernar Garmendia.

Bigarren urtez, Ordiziako udaleko Euskara Biziberritzeko Planaren barnean, 'Lanean. Ordiziako enpresak euskalduntzen' Euskara Plana ari dira garatzen Ordizian. Euskara Plan honen asmoa Ordiziako enpresetan progresiboki eragitea da eta horretarako Euskara Planak martxan jartzea, enpresen ezaugarri eta errealitate-ara egokituta.

2005. urtean hamar enpresei egin zitzaion Plan honetan parte hartzeko gonbidapena eta Elhuyar Aholkularitzako teknikarien bidez, enpresa horien diagnostikoak eta diseinuak egin ziren.

Ana Labaka, Elhuyar Aholkularitzako langilea da Ordizian koordinazioa darmana. Berak eman dizkigu planaren xehetasunak eta aldi berean, lan esparrua euskalduntzeak duen garrantzia azpimarratu du.

Goierrin lehenengo pla-

na da Ordiziako hau. Beste hainbat enpresetan ari dira, kooperatibetan, CAF-en... Zein ezberdintasun du Ordiziako plan honek?

Egitasmo hau udalerrri mailako egitasmoa da, horregatik da desberdina Goierrin. Lehendik Goerrin badira Euskara Plana martxan duten enpresak. Guk, esate baterako, Beasainen CAF

lantegian eta Ordizian Orkli lantegian martxan ditugu Euskara Planak. Ampo-Poyam-ek eta Irizarrek ere gurekin garatu zuten bere Euskara Plana. Enpresa hauen kasuan, bakarkako erabakiak izan ziren. Enpresa bakoitzean arrazoia desberdina izan zen Euskara Plana martxan jartzeko. Batzuetan langileak euskararen presentzia txiekiegia zela ohar-

tuta Euskara Plan bat martxan jartzeko pausoak eman zituzten eta beste kasu batzuetan, berriz, enpresako Zuzendaritza-organoak.

Kasu honetan, ordea, Udalak hala nahi duten Ordiziako enpresa guztietan Euskara Plana aldi berean martxan jartzearen aldeko apustua egin du. Horretarako, enpresen arteko Koordinazio Gunea deitzen den foroa sortuz.

Udalak hasi dira lan munduko egitasmoak martxan jartzen, baina Ordiziako berezia da Udalerrri mailako egitasmoa delako eta ez eskualde mailakoa. Mota honetako hainbat plan martxan dira Buruntzaldean, Urola Kostan... baina eskualde-mailakoak dira. Bestetik, Ordiziako Udalak enpresetako Euskara Planen kostu guztia bere gain hartzen du, kontuan izanik enpresa horietako asko txikiak edo ertainak direla eta

10 enpresa, 155 langile

Egitasmo honen barnean 10 enpresatan ari gara lanean eta hona enpresen datuak:

Izar eraikuntzak	7 langile
Goiagi okindegia	7 langile
Goierrri Aukera	11 langile
Aralar Grafikak	5 langile
Ugalde edariak	13 langile
Peugeot kontzesionarioa	4 langile
Anesdur	18 langile
Unanue	19 langile
Pagosa	29 langile
Garin okindegia	42 langile

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

Peugeot Santa Ana

Ramon Tolosa ere gustura dago euskara planarekin, nahiz eta onartu, muga asko dituela. "Peugeot-a multinazionala da eta paper gehienak gaztelera hutsean dauzkagu, eta horrela eskatzen digute gainera. Logotipoak nolakoa izan behar duen, zein koloretakoa... irudia asko zaintzen dute. Peugeoteko ordezkaria etortzen da tarteka, dena ondo dagoen ikusteko. Beraz, ahal duguna, uzten diguten neurrian, euskaraz eta gaztelera, bietara jartzen dugu. Orain errotulo berriak egin beharrean gaude eta horrela jarriko ditugu".

Hori bai, langileen arteko hizkuntza naturala euskara dela adierazi digu Tolosak. "Euskal giroa daukagu. Nik ere, lehenengo euskaraz hitz egiten diet bezeroei".



Peugeot Santa Ana langileak.

batzuk familiako enpresak. Lehen aipatutako udalerrietako egitasmoetan, berriz, udalerriek ez dituzte enpresetako planak bere osotasunean ordaintzen, kostuaren zati bat finantziazten diete...

Bigarren ezaugarri bat enpresen tamaina da. Lehen aipatu ditugunak enpresa handiak dira 500-2000 langile artean dituztenak. Ordiziako udalak bultzatzen duen egitasmo honetan hiru multzo daude: 0-10 langile bitartean dituzten enpresak, 10-25 langile artekoak eta 25-100 langile artekoak. Beraz, Euskara Plan guztien oinarria eta helburua bera izan arren, langile-kopuruaren arabera, enpresaren antolamenduaren arabera... lan egiteko modua, helburu zehatzak... oso desberdinak dira.

Beste erakundeek, beraz, ez al ditzte enpresak diruz laguntzen, euskara planetan sartzegatik?

Oro har, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailordetzak Euskara Planetarako diru-laguntzak ematen dituzte. Lehendik planean ari direnentzat eta baita lehen aldiz Euskara Planean murgiltzen direnentzat ere. Kasu honetan arazoa, ordea, honakoa da: lehen esan dugun bezala enpresa hauek oso txikiak dira eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntzen kontzeptuetan ez dute nahikoa gastatzen. Aurten eskatuko ditugu diru-laguntzak lehen aldiz Eusko Jaurlaritzan, gauzaren batean lortzeko

aukera badugu: koordinazio-jarduerak..., baina itzulpenak, softwareak, Euskara Batzordeak... ez dira enpresa handietan bezala gastu nagusiak. Enpresa txiki hauetan egiten diren itzulpenak Elhuyar Aholkularitzak egiten ditugu laburrak direlako, softwarearen hizkuntza batzuk ez dute aldatzen. Ondorioa, ikusi dugunaren arabera enpresa txiki hauek diru-laguntzetan beste kontzeptuen beharra dute: errotulazioa, papeleria, motibazio-jarduerak...

Udalak ematen ditu merkatarientzat kontzeptu

hauengatik laguntzak, baina txikiak dira.

Bestalde, Ordiziako udalak ez du jaso 2005. urtean aurrekoan baino diru-laguntza handiagoa, nahiz eta proiektu honetan inbertsio handiagoa egin. Beraz, aurtengo helburu nagusien artean dugu Eusko Jaurlaritzako HPS-rekin bilera bat egitea eta proiektuaren nondik norakoak azaltzea.

Zein garrantzia dauka lan mundua euskalduntzeak?

Prensaurrekoan azpimarratu zen bezala, orain arte hezkuntza hartu izan da arlo estrategikotzat euskara berreskuratzeko. Horretan ahalegin handia egin ondoren, ohartu gara hezkuntzan indar berezi hori jarri eta ikasleak euskalduntzea lortu denean ere ikasle hori lanean hasten denean prozesua eten egiten dela. Eskoletatik enpresetarako aldatzea zeharo bortitza da. Euskaraz ikasi duenak era-

Udalak hasi dira lan munduko egitasmoak martxan jartzen, baina Ordiziakoa berezia da Udallerri mailako egitasmoa delako eta ez eskualde mailako.



kutxa

gizarte ekintza

Goierri Aukera



Kristina Mertxan

Kristina Mertxan gogotsu ari da enpresan euskara normaltasunez erabiltzeko pausoak emanez. "Euskara plana beharrezko zerbait iruditu zaigu, Ordizian egonda. Kalean euskara entzuten da eta beharrezkoa da lan mundura ere zabaltea", dio.

Aurtengo helburutzat, paperak, iragarkiak, kartelak, errotuloak... euskaratzea jarri dute. "Bezeroari dagozkion paperak (aurrekontuak, fakturak, bisita txartelak...), elebidunak izango dira. Errotuloak ere elebietan jarri ditugu, gutxienez". Dokumentuak euskarara itzultzeko laguntza jaso dute.

Telefonoa ere euskaraz hartzeko konpromisoa hartu du Kristinak, "nik euskara galdua dut baina pixkanaka saiatuko naiz euskara berreskuratzen". Langileen artean, ahozko hizkuntza euskara izatea zailagoa ikusten badu ere, horretan pixkanaka-pixkanaka hasteko asmoa azaldu dute.

bat gaztelaniaz lan egin behar izaten du. Gehienez ere, suertea izanez gero, euskaraz lankideekin hitz egin ahal izango du, baina hortik aurrerako guztiak gaztelaniaz egin beharko ditu. Gainera, ezin dugu ahanztu egunean zortzi ordu, behintzat, lanean pasatzen ditugula hainbat urtez. Bestalde, enpresa bakoitza ez da isla bat, beste hornitzaile eta bezeroekin harremana du eta arlo horiek landuz besteen hizkuntza ere bultzatu daiteke.

Beraz, egitasmo honetan jaso dugun bezala, Ordizian 800 inguru lagun ari dira 32 enpresatan lanean. Beraz, hiru urtean 800 langilerengan eragitea lortuko bagenu, eragina nabaria litzateke.

Nola diseinatzen da euskara plan bat?

Enpresa tamainaren arabera pauso batzuk laburtu edo aldatu egiten dira, baina

gutxi gora behera honela egiten da. Lehenik, enpresari euskararen gairako arduradun bat izendatzea eskatzen diogu, euskararen arlo guztietan ordezkarria izan dadin. Euskara arduradunari eta enpresako beste hainbat langileri elkarrizketak egiten dizkiegu, euskararen presentzia enpresan zenbatekoa den ezagutzeko. Horretaz gain, enpresaren datu orokorrak eskatzen ditugu. Enpresara bisita ere egiten dugu. Informazio horrekin diagnostiko bat egiten dugu eta enpresako ordezkariekin kontras-

tatzen dugu. Diagnostikotik abiatuta, eurekin, helburuak zehazten ditugu euren asmo eta nahien arabera. Hortik, plana sortzen da. Hurrengo pausoak planaren implementazioa eta jarraipena izaten dira. Enpresa handietan Euskara Batzordea sortzen dugu euskararekin lotutako gaiak eta lanak koordinatzeko. Enpresa txikiak direnean, euskara-arduradunaren eskutian uzten dugu helburuak zehaztea. Egitasmo honetan, Koordinazio Gunean dugu martxan Euskara Plana garatzen ari diren enpre-

sa guztien topagunea dena eta, bestetik, udalaren Jarraipen Batzordea ere hor dago.

Lehenengo fruituak hasi al dira antzematen?

Azkarregi da oraindik fruituak ikusten hasteko. Kontuan izan behar da, iazko enpresak hasi besterik ez direla egin plana inplementatzen. Bidea luzea da eta arazoak eta kezkek azaltzen dira, gainerako arloetan gertatzen den bezala, zaila da erabileran eragitea. Baina, aurreikusitakoa betetzen bada bezero eta erabiltzaileok nabaritu beharko genuke hizkuntza-aldaketa. Izan ere, behintzat, jarrerak aldaketa somatzen hasi gara. Lehen planteatu ere egiten ez ziren alderdiak euskalduntzeko urratsak ematen dira eta langileen artean ere euskararekiko "txip" aldaketa bat badagoela azpimarratuko genuke.

Lehen planteatu ere egiten ez ziren alderdiak euskalduntzeko urratsak ematen dira eta langileen artean ere euskararekiko 'txip' aldaketa bat dagoela azpimarratuko genuke.

iñAUSTI N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
KARROZERIA
☎ 943 88 43 01

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak

*GazteNek plana sortu dute
Jaurlaritzak eta Diputazioek*

Nekazaritza sektorea gaztetzea helburu

Belaunaldi berriak nekazaritza sektorera erakarri nahian, GazteNek plana jarri zuen martxan 2004. urtean Eusko Jaurlaritzak, hiru Diputazioekin elkarlanean. Plana bera

zertan den azaldu digu Karmen Kortak. Horrekin batera, baserriarekin jarraitzea erabaki duten gazteak eta kaletik baserrirako saltoa ematea erabaki duten gazteekin izan gara.





ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
 © 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72
 201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



aulia

TOLARE
SAĞARDOTEĞIA

☎ 943 80 60 66
 Aulia-enea
 LEGORRETA

Nekazaritzaren iraupena ziurtatzeko gazteak nekazaritza sektorean sartzea derrigorrezkoa dela eta, Eusko Jaurlaritzak hiru Diputazioekin batera, GazteNek plana jarri zuen abian 2004. urtean. Alde batetik, nekazari gazteak baserri mundura erakarri; eta bestetik, dagoeneko nekazaritzan dihartuduten gazteek bertan jarrai dezaten nahi da. Horretarako, laguntza bereziak prestatu dira, laguntza pertsonalizatuak.

Era berean, "egitismo honek euskal nekazaritza-esparru gaztetu eta dinamiko baten oinarriak finkatzeko beharrezkoak diren neurriak artikulatzeko baliabidea edo tresna izan nahi du, zain dituen erronka zorrotzei arrakastaz aurre egiteko gai dena".

Karmen Korta beasaindarrak du ardura Ordiziako Eskualdeko Nekazal Ganbaran, GazteNek planaz. Kortak zehaztu duenez, "baserritarren batzabesteko adina oso altua da eta sektorea gaztetzeko beharra ikusi da. Laguntza berezi batzuk eman nahi izan dituzte. Lehen ere baziren gazteentzako laguntza batzuk, Diputazioak ematen zituen, gazteen instalakuntzarako. Horiek orain ere hor daude. Horiez gain, GazteNek beste laguntza batzuk ere ematen ditu".

Dirulaguntza eta orientazioa

Dirulaguntzaz gain, orientazioa era eskaintzen du GazteNek-ek. "Gazte baten egitasmoa onartzen bada, gazte horri formakuntza ibilbidea proposatzen zaio eta beste alde batetik, diru la-



Goierriin, 2003an gazte batek aurkeztu zuen proiektua GazteNek-en. 2004an, bostek eta 2005ean bik.

guntza bat ere ematen zaio, berak buruan dituen ideiak proiektuan bihurtzeko". Hazi-kapitala deitzen zaion dirulaguntza hori 25.000 eurokoa izaten da. "Gauzatu den proiektua ontzat ematen bada, jasoko du hazikapitalaren zati bat (bi herena). Balorazioko batzordeak erabakitzen du proiektua bideragarria den ala ez. Ondoren, hirugarren herena, proiektua martxan jartzeko gai direla ikusten bada ematen zaie", zehaztu du Kortak.

Formakuntza

Dirulaguntzaz gain, formazioak ere garrantzia handia dauka GazteNeken. "Pertsona horrek zer dakien eta zer egin nahi duen ikusita, formazio ibilbide bat proposatzen zaio. Aldi berean, monitore bat izendatzen da gaztearentzako. Monitore hori administrazioak ordaintzen du. Monitore horiek, batzutan, Fraisoroko irakasleak izaten dira, beste batzuetan baserritarren kudeaketa kooperatibetako langileak. Garai horretan,

monitoreak gazteari lagundu beharko dio, gidatuko duena izango da".

40 urtetik beherakoentzat

40 urtetik beherakoentzat zuzendutako plana da GazteNek. Goierriin, dagoeneko zortzi gaztek erabaki dute nekazaritzara hurbiltzea edo jarraitzea.

Kaletik baserrira joan direnak egon badaude ere, gehien-gehienak, nekazarien seme-alabak dira. "Berri batzuk etortzen dira, baina hauek daukaten arazoa, lurrik ez daukatela da. Eta gaur egun lurra eta baserria lortzea oso zaila da. Inbertsio handiak egin behar dituzte".

Baserriaren jarraitzaileak direnek ere badute GazteNek planean parte hartzeko aukera. Karmen Kortak, adibide bat jarri du: "Lehendik etxe batean aktibitatearik

Pertsona horrek zer dakien eta zer egin nahi duen ikusita, formazio ibilbidea proposatzen zaio.



ARANDIA

Garajea

LADA AUTOEN KONPONKETA

Ssang Yong

N-1, z/g

Iurre Auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 09 47



Tel. eta Faxe: 943 886 558

Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO

toldosagustin.com

augin@toldosagustin.euskalnet.net

40 urtetik beherakoentzako plana da.

baldin badago eta gurasoei gazteren batek jarraituko badie, gazte horrek agian ikusiko du aldaketaren baten beharra. Beraz, gazte horren proiektua izango litzateke, orain arte egin dena beste nonbaitera eramatea, beste ikuspegi bat ematea”.

Horretan laguntzeko, gazteei ondoko gomendioa eman die Karmen Kortak: “munduan barrena itzuli bat eman eta beste leku batzuk ikustea, ideia berriak jasotzea”.

Bizi kalitatea hobetzea

Eusko Jaurlaritzak GazteNek planarekin bizi-baldintzak hobetza ere lortu nahi du: “landa-ingurunean bizi eta lanean ari diren aktore nagusiek (laborariek, enpresariek, emakumeek, eta abarrek..) zenbait enpresa-dinamiketara moldatu ahal izateko ahal legin gehigarria egin behar izango dutela dakar, eurek betetzen dituzten funtzio guztiak gizartearen aurrean balioztatu ahal izateko. Horrela lortuko da nekazaritza-sektoreak aurrera egitea eta gainerako euskal gizarteak dituen bezalako bizi-baldintzak izatea.”.



Jone Lukas eta Jose Migel Arratibel

Baserriaren jarraitzaileak

Jose Migel Arratibel Ataungo Hergoiena auzoko Sariarte baserriko semeak eta bere emazteak, Jone Lukas altsasuarrak, baserriarekin jarraitzeko apustua egin dute. Jose Migelek CAFen lana egiten badu ere, Jonek heldu dio baserriari, berak esperientzia pixka bat ere baduenez. Behiak kendu eta ardiekin bakarrik jarraitzea erabaki dute. Orain, artegia eta gaztandegia egiten ari dira baserri inguruan.

Gaztandegia

Artaldea dagoeneko badute, eta orain artegia eta gaz-

tandegia egiten ari dira. GazteNek-en proiektua aurkeztu dute eta hainbat ikastaro ere egin dituzte. “Ganaduari buruzko ikastaroa, artegiari buruzkoa, gaztandegiaren lege berria, enpresa arloko gaiak... Azken batean, enpresa txiki bat da”, dio Jonek. Orain, dirulaguntzen zain daude. “Ez dakit zer etorriko den, gero eta zailagoa dagoela dirudi eta. Dena den, datorena ongi etorria izango da”, dio Jonek.

Etapla berrian sartuta daude Sariarte baserrian eta datoren negurako gazta egiten hasteko asmoa dau-


kate. Orain, momentuan, arkumeak eta ardi-esnea saltzen ari dira.

Artegiaren beharra

Maiatza-ekainetik azarora bitartean mendian eduki-tzen dituzte ardiak, Ataungo mendietan ibiltzen dira. Neguan, etxean eta inguruko larreetan, “han eta hemen, sakabanatuta dauzkagu, ahal den lekuan. Hori bai, behin artegia egindakoan ardi gehiago erosteko asmoa daukagu. Artegiarekin hobeto lan egingo dugu, praktikoagoa izango da”, gaineratu du Jonek. “Garrantzitsua da belaunaldi berriek baserriarekin jarraitzea, gaur egungo teknologia berriak sartuta. Modernizatu baino gehiago, norberaren buruari begiratu behar zaio”.

Inaki Arratibel etxeko aitak ere garbi dauka, “norberak atera behar du norberak norbere bizia. Inor ez da bizi lehen egindakoa-rekin, norberak egin behar du bide berria”.

Betiko baserriarekin jarraitzeko asmoarekin animatuta daude. Jone Lukasek adierazi duenez, “aurreko guztia ezin dugu pikutara bidali”. Beraz, gazteak animatu nahi ditu Jone Lukasek, baserriarekin jarraitzera. Hori bai, Jonek garbi dauka, gustatu egin behar dela.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



Jon Harreguy Usurbilgoa da, 29 urte ditu eta Martina Urbistondo, 23 urtekoa, Sarakoa. Joan zen urritik hona, zeraindar berriak dira. Zeraingo Inaxio Zabalo artzaina erretiratu ondoren, bikote gazteak erosi du artegia eta etxebizitza. "Jakoba Errekondoren bitartez jakin genuen Zerainen artegia salgai zegoela. Inaxio desiatzen zegoen gazteei artegia saltzeko", zehaztu du Jonek. Beraz, urte erdia Zerainen egiten dute, eta beste erdia, Aralarren, Igaratzen.

Kaletik mendira

Jon Harreguy kaletarra da baina mendi alderako, artzaintzarako saltoa eman

Jon Harreguy eta Martina Urbistondo

Sukaldaritzatik artzaintzara

du, Martinarekin batera. Biak ere, sukaldari izatetik artzain izatera pasatu dira. Jonek adierazi digunez, "betitik gustatu izan zaizkit animaliak, batez ere ardiak. Ni sukaldaria nintzen eta ez nuen nire gustuko ezer aurkitzen. Baina artzaintzan hasteko ez zen erraza, kalekoa izanik, baserririk ez nuen, lurrik ere ez...". Poliki-poliki hasi zen sukaldaria munduan barneratzen. "Lehenengo Alegiko Migel Mari Agirre artzainarekin. Ur-

tebete egin nuen. Handik Aiako Iturriozera joan nintzen, beste baserri batera, artaldea zaintzera. Han bi urte egin nituen. Urtero Arantzazuko Artzain Eskolakoak etortzen ziren, Nikolas Segurola tartean, eta Artzain Eskolara joatea komenigarria zela azpimarratu zidaten. Lehenengo urtean ez nintzen joan, baina bigarrenean bai. Aian ere ez nuen aurrera begirako proiekturik, pasadizo bat zela, eta orduan Artzain Eskolara joan nintzen. Han-

dik, Zestoara joan ginen, baserri batean errentan jarri eta lehenengo ardiak han erosi genituen. Hiru urte egin genituen bertan. Orduan eduki genuen Zeraingo artegi honen berri".

Martinak berak ere, bide berdina egin du, sukaldetik mendira. "Aiako taberna batean sukaldari nabilela ezagutu nuen Jon. Niri ere artzaintza gustatzen zitzaidan eta elkarrekin hasi dugu bidea".

Gustau egin behar da

Hartu duten bidearekin gustura daude. "Lanbide honetan sartzeko, egin behar diren gastuak egiteko, gustatu egin behar da. Bestela oso nekoso da", diote. Zerainen ere oso gustura daude.

Negu partean lan asko izaten du artzainak, uda lasaiagoa. "Uda, neguko lanaren ordaina izaten da. Neguan lan asko izaten da eta uda lasaia. Beste lan batzuk izaten dira baina uda lasaia izaten da".

Uda partean Aralarren izaten dira. Neguan, "Inaxio larreak hartuta zeuzkan errentan, eta artegiarekin batera berak erabiltzen zituen larreak utzi dizkigu".

Inbertsio handia egin dute artzain gazteek, eta "GazteNeken aurkeztuak ditugu paper guztiak. Ikusteko dago zer erantzun emango ote diguten".



Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

OSINALDE

KARROZERIA

AMEBI



Sagardotegia

Sagardoa

txotxetik

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

Oiangu Pilota Elkartea




Oiangu Pilota Elkarteko taldea bere lehendakari Jesus Mari Albisurekin. Argazkian Azeari Andonegi, Mikel Aranzegi, Xabier Dorronsoro, Jon Goiburu, Jon Soraluze... falta dira.

Ordiziako Oiangu Pilota Elkarteko pilotariak sasoi betean daude. Emaitza onak eskuratzten ari dira Gipuzkoa mailan, eta aurrera begira, Euskal Herri mailako ga-

raipenak lortzeko bidean direla uste dute Oiangu Pilota Elkartekoek. Pala motzean eta larruzko paletan, bote prontoan jardun gara Goierriko pilotariek.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobek"



OKINDEGIA GAIKIONA

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

Etxe-Zuri baserria ☎ 943 882 049 **OLABERRIA**

- ✓ Asteburuetakoko menuak
- ✓ Eguneroko menua 8 euro
- ✓ Asteburuko menua 15 euro
- ✓ Sagardoa txotxetik urte guztian
- ✓ Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.

Noiz sortu zen Oiangu Pilota Elkartea? Zein ezauzgarri ditu?

A.B.: Oiangu Pilota Elkartea, 1990. hamarkadako lehenengo urteetan sortu zen. Jai-Alai elkarte bat zegoen, profesionalen eskuzko pilota partidak antolatzen zituen. Hortik jende bat atera eta pala elkartea sortu zen.

Pelotariak zarete elkartearen beraren oinarri.

A.B.: Orain hasita gaude zuzendaritza sortu eta erabakiak hartzeko organo bat sortzen. Azken batean, antolatu, jokatu... guk egiten dugu dena. Taldean entrenatzailek ere ez daukagu. Atzetik dirua balego, seguraski pertsona bat jartzea izango genuke horretarako.

Txarrerako eta onerako da hori?

I.G.: Txarra ez da, honela denok denaren jakitun gara. Baina zuzendaritza osatu dugu eta hasita gaude gauzak txukuntzen. Azken batean denbora asko eskaini behar zaio. Ardurak banatuta dauzkagu.

Kirol mailan, behintzat, emaitza onak ari zarete lortzen.

Iñaki Gaztañaga: Hori horrela da, zortea daukagu. Oso talde polita elkartu gara, adinez nahiko berdintsuak. Guztiok ari gara aurrera eramaten eta elkarrekin ikasten. Serio entrenatzen ari gara. Eta horrek asko egiten du.

Andoni Berasategi: Entrenamendu mailak emaitzak ematen ditu. Egia da lehen ere bagenuela garaipen batzuk, baina iaz eta aurten oso ondo ari gara. Hainbat taldekide Euskal Herriko selekzioarekin jokatzen ari dira, garaipen batzuk lortu dira (Udaberri saria, Gipuzkoako txapelketa...). Hemenetik aurrera, Euskal Herri mailan zerbait lortzeko zorian gaudela esan liteke. Aukera hori badago.

Emaitza on horien sekretua zein da?



I.G.: Giro ona daukagu. Kasualitatez, Goierriko herri ezberdinetako jendea elkartu gara, adin berdintsukoak, mailaz ere bai...

A.B.: Urte batzuk badaramazkigu goiko maila horietan eta pixkanaka igoz, emaitzak lortzen ari dira. Sekretua da, mundu horretan ikastea.

Herri ezberdinetako jendea biltzen zarete taldean. Goierriko talde bakarra al da?

A.B.: Idiazabalen, Atxurbide badago. Bigarren mailan dabilta. Urretxun Beloki taldea ere bai. Erreferentziatzeko taldea Oiangu da. Eskola daukan talde bakarra Oiangu da. Haur batzuk astero etortzen dira. Klub itxura duen bakarra gurea da Goierri.

Harrobia lantzen ari zarete, eta eskola ere ematen duzue, beraz.

A.B.: Ostiraletan, bi talde aritzen dira. 20 bat haur eta gaztetxo arituko dira guztira.

I.G.: Beraientzako jolas bat da eta zaila izango da gorago joatea.

A.B.: Baina beti ateratzen da bat edo beste. Gustatuz gero, aukera badute aurrera egiteko. Eskolako hauena hirugarren belaunaldia da eta gu gauden lekuraino erakartzea da gure lana.

Zenbat pelotari ari zarete klubean?

A.B.: Nagusitan, lehiaketetan, 15 bat lagun aritzen gara.

Bikoteak beti berdinak izaten al zarete?

A.B.: Ez, aldakorra izaten da, baina batzuekin gehiago jokatzen da beste batzuekin baino.

I.G.: Zein txapelketa jokatzen den, zein maila eman nahi den... hori neurtzen da bikotea osatzeko garaian.

Azpiegitura aldetik, arazorik ba al duzue?

A.B.: Beti dago zer hobetua. Oraingoz, pelotalekua ondo dago jokatzeko, gustura jokatzen dugu.

Hemendik aurrera, Euskal Herri mailan garaipenak lortzeko zorian gaudela esan liteke.

I.G.: Hori bai, jendea partiduak ikustera erakartzeko ez da oso gustagarria: berogailurik ez dago, aulkirik ere ez, tabernarik ere ez... Bestetik, zerbait hobetzea eskatzen, sarea konpontzea eskatuko genuke. Petatxo asko jarrita daude eta hobeto jar daiteke. Entrenamenduetan pelota asko sarera joaten zaizkigu, puskatu egiten da sarea. Pelota asko bertan gelditzen dira eta diru asko balio du pelotak, 12 euro inguru.

Entrenatzeko ondo moldatzen zarete?

A.B.: Orain arte ondo. Udalak orduak ematen dizkigu eta orain arte ordu kopuru nahikoa daukagu. Astelehenetik ostegunera entrenatzen dugu. Palaz jokatu nahi duten herritarrek normalean beste herri batzuetara joan behar izaten dute. **Palaz jende askok jokatzen du. Jolas bezala hartzen da. Federatzeko pauso hori ez da hain erraz ematen.**

A.B.: Nik uste konplejo pixka bat badagoela. Jendea ez da gehiago animatzen lehiaketetan parte hartzera, konplejoagatik.

I.G.: Ondo jokatzen duen jende asko dago. Entrenatzeko gonbitea egiten diegu

baina ez dira ausartzen. Baina ez dago arazorik. Entrenamenduetara etorri eta larruzko pelotaz jokatzen hastea besterik ez da.

A.B.: Guk ere jolas puntu hori ez dugu oraindik ere galdu. Guk gozatu egiten dugu jokatzen. Guk egunero entrenatzen dugu, gustatzen zaigulako eta ez daukagu bestelako alizienterik. Jolas bat da.

I.G.: Hori da, pixka bat entrenatu, jenio txarrak pelotalekuan utzi eta listo. Jokamolde horrek ez du fisikoki topera egotea eskatzen, ez du horrelako esfortzu handirik eskatzen.

Zaleturik etortzen al da pelota partiduak ikustera?

A.B.: Normalean ez, lagunak eta familiakoak bakarrik. Eta hori pelotalekua herri erdian dagoela. Ez dago interesik, oraingoz. Egun puntual batzutan jendea etorri da, Eguberrietan eta Santiago Egunean batez ere. Bestela, maila altuko lehiaketako partiduren bat egonda, ez da ia inor etortzen. Haurrak, bai. Iaz pentsatu genuen, marketing pixka bat eginda, behar bada, pala mundua zabaldu eta egoera aldatuko litzatekeela. Gutxienez, jendea pelotaleku ondotik pasatzerakoan pala hotsa entzuten badute, zertan ari garen jakin dezala. Pixkanaka ea buelta ematen diogun.

Eskupilota modan dagoela dirudi.

A.B.: Eskupilotak, futbolak daukana dauka: marketing handia. Egunero egiten da komentarioren bat. Baina hori bai, pelotari zehatz batzuk eta txapelketa zehatz batean. Bestela, hor dago adibidea: Eibarren, igandero pelota partiduak jokatzen ziren, pelotari onekin, eta jendea ez zen joaten. Itxi egin dute. Lehiaketetara joaten da jendea, morboa sortzen delako. Guk eskatuko genuke, pelotako beste modalitateek ere, eskupelotan



Pala motza eta larruzko paleta

Batez ere bi modalitate horietan jokatzen dute Oiangu Pilota Elkartekoek. Bien artean zein ezberdintasun jakin nahian, hona hemen zenbait datu argigarri:

Palaren neurrian eta forman, eta pelotaren neurrian oinarritzen da bi modalitateen arteko ezberdintasuna. Izan ere, bietan ere, larruzko pelotarekin jokatzen da. Hori bai, handiagoa edo txikiagoa izaten da, modalitatearen arabera. Paletan pelota txikiagorekin jokatzen da.

Palari dagokionean, loditasunak adierazten du ezberdintasuna. Pala motzeko pala, lodiagoa eta estuxeagoa da. Paleta berriz, zabalxeagoa eta finagoa. Pago egurrez egindakoak izaten dira palak. Pisuan ere badute aldea. Pala motzeko palak 800 gramo inguru pisatzen du eta paletak, 700 gramo inguru. Teknika aldetik ez omen dago aldaketa handirik.

Pala luzeko modalitatea ere badago. Dena den, Ordiziako Oiangu Pilota Elkartekoek gutxiago jokatzen dute, Gipuzkoako txapelketan bakarrik. Horretarako gainera, pelotaleku handiago behar da, zesta puntako pelotalekua hain zuzen ere.

bezala, antzeko tratamendua izatea. Pala profesionala adibidez, Bilboko Deportivon bakarrik dago eta hura ere itxi nahian dabilta. Beraz, eskuz lortu dena, ez dago palaz egiterik, nola eta pelotariak Deportivotik atera eta herrietara ez diren joaten Euskal Herriko txapelketa bat jokatzerara. Horrekin batera, noski, prentsa pixka bat beharko luke. Hemengo jendeak ez daki, baina Bizkaian, Sopelan, Bakion, Sestaon, Armintzan... palak eskupelotak baino indar gehiago dauka.

I.G.: Aurreko asteburu batean Sestaora joan ginen eta pala partidua ikusteko sarrerara 2 euro kobratu ziguten. Eta hala ere, jendea ze-

goen ikusten. Hemen dohainik jarri eta hala ere ez da inor etortzen.

Ikusteko, pala kirol espektakularra dela esaten da. Zein erakargarritasun du palak?

I.G.: Abiadura, hotsa... kirol ikusgarria da.

A.B.: Telebistan botatzen dituzten pala partiduetan, sakea atera eta ezin bueltatu ikusten da, ikusgarritasunik gabe. Baina pala luzearekin jokatzen dute, pelota ere askoz pisuagoa da. Oso zaila da jokatzea. Beraz, aspergarria izaten da eta jendeak pentsatzen du pala hori dela, hau da, joko itsusia dela. Baina ez da horrela izaten. Askotan oso tanto ikusgarriak izaten dira, ba-

tez ere paletan. Jokalaria ona ala txarra den albo batera utzita, herramintak berriak erakargarriak dira: pelotaren botea, azkartasuna, hotsa...

Dirulaguntzarik jasotzen al duzue.

A.B.: Ordiziako Udalak ematen digu dirulaguntza bat.

I.B.: Ez da nahikoa izaten eta hilerro, kuotatxo bat ordaintzen dugu, gastuetarako.

Babeslerik ba al duzue?

A.B.: Bai, Irungo enpresa batek dirulaguntza ematen digu, Transet. Kamisetan bere publizitatea eramaten dugu. Gu Ordiziakoak izanda, ea Goierriko enpresaren bat animatzen den!



Palmares zabala

Ondorengo argazkietan, nagusien mailan, lehiatzen ari diren Oiangu Pilota Elkarteko hainbat pilotari ageri dira. Garaipen guztiak agertzea ezinezkoa izan zaigu leku arazoa-rengatik, baina laburpentxo bat duzue idatzita.

Momentu honetan, Azeari Andonegi da mailarik gorenean jokatzeko ari dena. Atzelari ezkerria Euskadiko selekzioarekin lehiatu izan da.

Hauetz gain, atzetik indartsu datoz beste bi gazte ere: Jon Sorraluze eta Gorka Berasategi. Biak ere gazteen mailan Gipuzkoako txapeldun izanak.



Jose Luis Aizpurua

31 urte. Ordizia.

Gipuzkoako herriarteko txapeldun eta bost aldiz Ordiziako Hiria larruzko paletan garaile.



Azeari Andonegi

26 urte. Lazkao.

Gipuzkoako txapeldun izan da paletaz eta pala motzez. GRAVN txapelketa ere irabazia du Gipuzkoarekin.



Iñaki Aranburu

28 urte. Ordizia.

Jubeniletan Euskal Herriko txapeldun larruzko paletaz. Gipuzkoako txapeldun hainbat aldiz.



Gari Arrieta

30 urte. Olaberria.

Gipuzkoako herriartekoan hiru aldiz irabazle. Larruzko paletan Gipuzkoako txapeldun 2000 urtean.



Iker Arrieta

26 urte. Olaberria.

Gipuzkoako herriartekoan hiru aldiz txapeldun. Larruzko paletan Ordizia Hirriako irabazle 1997an.



Andoni Berasategi

30 urte. Ordizia.

Gipuzkoako txapeldun pala luzez eta pala motzez. Larruzko paletako txapelketa irabazle Soplan.



Xabi Berasategi

25 urte. Olaberria.

Gipuzkoako herriartekoan hiru aldiz irabazle. Larruzko paletan Ordizia Hirriako irabazle 2004an.



Jose Manuel Garrido

33 urte. Olaberria.

Espainiako txapeldun jubentil mailan Euskal Herriko txapeldun senior, junior eta jubeniletan.



Iñaki Gaztañaga

29 urte. Beasain.

Gipuzkoako Udaberri sari-ko txapeldun larruzko paletaz 2005. urtean.



Rikardo Goiburua

31 urte. Ordizia.

20 urtez azpiko Euskadiko Kopa eta Gipuzkoako txapelketan garaile. Herriarte-ko txapeldun 2000. urtean.

Beasaingo idazlan lehiaketako irabazleak

Otsailaren 4an egin zen Beasaingo Udaltzeko Batzar Areatan, XVI. Beasain idazlehiaketako sari-ematea. Sariak, Gipuzkoa/Donostia Kutxak finantzatu ditu eta saritutako idazlanak Udaleko Euskara-batzordeak argitaratu ditu. 5 mailatan banatuta, 41 sari eman dituzte. Beasain eta Goierriko ehunka ikasleek idatzi dituzte beraien idazlanak.

A Maila (1988 eta 1989 urteetan jaiotako es-kualdeko ikasleen artean)

Olerkian

1. saria: Xabier Araña Urteaga, 'Bazinen behin'. **2. saria:** Aintzane Bengoetxea Zurutuza, 'Urrun'. **3. saria:** Garazi Auzmendi Arkarazo, 'Bizitzaren paradisu'. **Aipamen-sariak:** Amaia Arregi Fernandez, 'Irakatsi zidaten'. Ane Arrieta Telleria, 'Ahaztezin den hari'. Eneritz Zabaleta Merino, 'Lore bat'.

Hitz lauz:

1. Saria: Xabier Araña Urteaga, 'Alberto'. **2. Saria:** Garazi Auzmendi Arkarazo, 'Azken agurra'. **3. Saria:** Hutsik. **Aipamen-sariak:** Usua Aseginolaza Muñoz, 'Zoriontasunak biltzen nau, baina ni bizkorragoa naiz'. Aintzane Bengoetxea Zurutuza, 'Malko bi'. Eneritz Zabaleta Merino, 'Iraganeko horma'. Garazi Etxeberria Barandiaran, 'Zoruaren eta sabaiaren artean irensten gaituztelako'. Esther Eskisabel De Juan, 'Bestalderako bidea'.



B Maila (1990 eta 1991 urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean)

1. Saria: Jon Ander Mujika Chaos, 'Gaur agian'. **2. Saria:** Irati Murua Saltsamendi, 'Erbesteko zirrikitutik sustraiei so'. **3. Saria:** Amaia Azurmendi Lasa, 'Queen of darknes'. **Aipamen-sariak:** Eñaut Agirre Iturriotz, 'Aitonaren ahotsa'. Maddi Murua Sarriegi, 'Epeltasunaren bihotzerantz... itzulera gabeko bidean'. Eneko Etxeberria Urteaga, 'Pobrearen herrenak'. Enara Estala Sukia, 'Gela iluneko pentsamenduak'.



D Maila (1992 eta 1993. urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean)

1. Saria: Garazi Otegi Etxezarreta, 'Olentzero geure barnean da'. **2. Saria:** Maialen Idiakez Agirre, 'Iragan denbora arrotza'. **3. Saria:** Sara Intsausti Gonzalez, 'Zu gabe'. **Aipamen-sariak:** Amets Etxaide Berasategi, 'Eskola iluna'. Mikel Muñoz Larrea, 'Oparirik onena'. Andoni Arruabarrena Aldasoro, 'Deabruaren oinetakoak'. Leire Arrieta Telleria, 'SMS-ekin engantxatuta?'.



E Maila (1994. eta 1995. urteetan jaiotako ikasle beasaindarren artean)

1. saria: Nerea Alustiza Escaño, 'Basamortuko istorioa'. **2. saria:** Mikel Etxeberria Okariz, 'Art-aburu'. **3. saria:** Ainhoa Miguel Irastortza, 'Gutun eta kuttun'. **Aipamen-sariak:** Maialen Perez Mujika, 'Tio Pako'. Amaia Garmendia Beraza 'Nire anaia zuhaitza'. Nora Jauregi Gerriko, 'Herri-mina'. Maite Muñoz Larrea, 'Joanito eta Kenyako hur behartsuak'.



F Maila (1996. eta 1997. urteetan jaiotako ikasle beasaindarren artean)

1. Saria: Unai Irastortza Jauregi, 'Nire ganbarako koadro zaharra'. **2. Saria:** Aitor Ormazabal Lasa, 'Txokolatea gustatzen zitzaien astoa'. **3. Saria:** Erantz Saez De Egilaz Ramos, 'Basoan zehar'. **Aipamen-sariak:** Janire Andola Gabilondo, 'Gizon alferraren istorioa'. Mikel Duran Lopez, 'Elefante magikoa'. Asier Gorostegi Galarraga, 'Gorri katargorria'. Maddalen Sarasola Olano, 'Itsasoren ametsa'.

berriz

AMAYA ARZUAGA	FRENCH CONNECTION
MIRIAN OCARIZ	DIESEL
ISABEL MARANT	FOR ALL MANKIND
PAUL & JOE	ANTIK BATIK
HOSS	EARL JEANS
MISS SIXTY	SCOOTER

BEASAINDONOSTIA

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak

☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

ZUZENKI

A H O L K U L A R I T Z A



Bai Fiskarari Zuzentzaia
Guk zerbitzua euskaraz

Abokatuak

Enpresen asesoria eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Hirigoien, 7 LAZKAO



www.txekin.net

Jentilbaratzako gaztelua, Ataunen


Mitologiaren arabera, Tortok egindako harresia

Jentilbaratza, XI. mendetik XIV.era bitartean interes handiko lekua izan zen. Ertaro garai honetan pasabide garrantzitsua bihurtu zen batez ere, Nafarroa eta Gaztela arteko gatazkan.

Ataungo garai bateko gazteluaren aztarnak oraindik nabarmenak dira. Gaztelua, San Martin auzoan Aralar alde hartzeko, Aitzarteko bidea hartzerakoan ezkerretara gelditzen da. Harrobi gainean Aizkoate mendi zerraren lehenengo gaina da.

Handik ziurrenera menperatuko zituzten garai batean pasabidetik igaro nahi zuen jendea. Bertako hondakinak guda eta borroka usaina dario.

Sinismen handia zen eta dago garai bateko "jentilen" bizileku ere bazela. Jentilak, arraza bortitz eta basatiak omen ziren, Kristau bihurtu nahi izan ez zutenak baina beheran bizi ziren herritarrekin harreman asko izan zutenak. Arrazoi honegatik



kontatzen eta ezagutzen dira oraindik ere hauei buruzko pasarte eta kontu zaharrak.

Erromatar garaiko aztarnak

Joxemiel Barandiaran, Jentilbaratzan hasi zen bere lehenengo ikerketak egiten.

XI. mendetik XIV.era bitartean interes handiko lekua izan zen. Ertaro garai honetan pasabide garrantzitsua bihurtu zen, batez ere Nafarroa eta Gaztela arteko gatazkan.

Bere magalean, 1916an, aurkitu zituen Barandiaranek erromatar garaiko aztarnak, ontzien zatiak, hiltzeak eta erdoiltutako burni puskak, ezpataren zatiak, hiru lantza punta, eta bi txanpon. 1925ean eraztuna aurkitu zuten bi baso langilek.

Tontorraren gainean partaren zati eder bat oraindik zutik dirau eta ura gordetzeko harkaitzean egindako zulo eder bat ere oso ondo kontserbatzen da oraindik. Aldamenean beharaxeago koba zulo bat ere aurkitzen da.

Hau ote da beraz, Athagun edo Athaviteko gaztelua? 1200. urtean nafarrek, Alfonso VIII Gaztelako Erregeari eman zioten. Hala eta guztiz 1261ean berriro ere nafarren esku geratu zuten.

1279an gipuzkoarren erasoak jasan zuen. 1295ean sutea, baina berritua izan zen. 1335ean berriro ere gipuzkoarrek inguratu egin zuten.

1390. urtean azkenik eta Nafarroako Erregearen aginduz suntsitua izan zen.

Informazio iturria:
www.ataun.net

Mitologia

Ataungo lelendak dioenez, Tortok edo Tartalok egin zuen Jentilbaratzako gazteluaren harresiak.

Torto Muskiko koban bizi zen, ia beti. Beste jentil guztiak baino basatiagoa zen, indartsua oso eta bere ezauzgarri nagusia, kopetaren erdian zuen begi bakarra da. Horrez gain, bere koba inguruan dabiltzan aninaliak ehizatu eta janez bizi da eta inoiz, baita inguruan harrapatzen duen gizakiren bat ere.

Informazio iturria:
'Jentilen etorrera. Herri baten arima' liburua



*Zaldibia***Berri Txarrak taldearen kontzertua**

Zalidibiako Gazte Taldeak antolatuta larunbat honetan, otsailak 11, kontzertua izango da, gaueko 10,30etan, herriko antzokian. Berri Txarrak eta Materia taldeeko joko dute bertan.

*Beasain***Bertso-afaria, Amuriza eta Egañarekin**

Bertsoaren Beasaingo Lagunak eta Arrano Kultur Elkarrekin antolatuta, otsailaren 11n, gaueko 9etan, Arrano Elkarrekin, bertso-afaria izango da Xabier Amuriza eta Andoni Egañarekin. Afarirako txartelak, Arrano tabernan bertan eros daitezke, 20 eurotan.

*Beasain***Neguko IV. Bertso-paper lehiaketa**

Bertso afaria antolatu duten bi elkarteek, Neguko IV. Bertso-paper lehiaketa ere antolatu dute. Bi taldetan dago banatuta lehiaketa:

A. taldea: 2006an 18 urte baino gutxiago beteko dituztenak sartzen dira talde honetan. Hauek, gutxienez 5 eta gehienez 8 bertso aurkeztu beharko dituzte, gai eta doinu librean. Saria, 330 eurokoa izango da.

B. taldea: 2006an 18 urte edo gehiago beteko dituztenak, gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dituzte, gai eta doinu librean. 650 euroko saria dute zain. Goierriko onenarentzat berriz, 170 euroko saria egongo da.

Lanak aurkezteko epea, otsailaren 26an bukatuko da. Epe horren barrun, orijinala eta 3 kopia bidali beharko ditu parte hartu nahi duenak, Beasaingo Arrano Kultur Elkarrekin, Kale Nagusko 12. zenbakira. E-mailaz ere bidal litezke: negukolehiaketa@euskalerialdea.org.

Dolarea
j a t e t x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

*Abo finen
gozamenerako...*

Gure kartak otordu landuak eskeintzen ditu non zapore eta texturak aurkezpen harmoniosuekin konbinatzen diren...



IBILGAILUAK

salgai

Volkswagen Transporter furgoneta salgai. I.9TD, 90 zaldi, SS-BF. 9.000 euro. 650399303

Mobilette campera motorra salgai. 943084179.

Opel Ascona autoa salgai. SS-W. 300 euro. 646418932.

Mercedes Vito I10 D furgoneta salgai. 97an matrikulatua. Egoera onean. 4.500 euro. 646915961.

PABILOIAK

errentan eman

Ordizian, Eroski ondoan, pabiloia alokatzen da, 150 m². 615787097.

Beasaingo Salbatoren, 300 m²ko pabiloia errentan ematen da. Ekipatua. 662331550.

GARAJEAK

errentan eman

Ordizia erdialdean, garaje itxia alokatzen da. 665756560.

Ordizian, Josetxo Sporteko etxe berrian, garajea alokatzen da. Garajea goiko solairuan dago. Saltzeko eskaintzak ere entzuten dira. 635746967.

ETXEBIZITZAK

salgai

Donostian, Artzain Onaren inguruan, bizitzeko egokitutako sotoa salgai. 38 m². Erabat berritua. Aire egokitua. 650114788.

errentan hartu

Goierriin, pisua alokatu nahian gabilta bi neska goierritar. 676713239. 20:00etatik aurrera deitu.

elkarbanatzeko

Donostian, Antiguoz auzoan, pisua osatzeko pertsona bat behar da. 225 euro. 657733455. Nekane.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Emakumezko eskularru beltzak galdu nituen abenduaren 20tik 23ra bitartean, Lazkao, Ordizia eta Zaldibia artean. 943161828.

ANIMALIAK

salgai

Pottoka kualifikatuak salgai, Zaldibian. 605743796.

Bi poni gazte salgai. Harra eta emea. Eskura ohituak. 943161945.

opari

4 txakurkume oparitzen dira, artzain txakur antzekoak. 667827327.

Artzain txakurkumea opari. 3 hilabetekoa. 666045012. 17:00etatik 21:00era deitu.

LOKALAK

errentan eman

Legorretan, lokala alokatzen da. 300 m². Ezin hobea biltegi edo antzekoetarako. 630708624.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa

Tel. - faxa:
943 88 43 87
676 178 488
Ibarguren
baserria
ZALDIBIA

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Eikargokide zembakia: E-2644
RPS. 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria: Tfnoa:
NAN:
Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, Urbialde plaza, 7 behe, Beasain**

BESTELAKOAK

salgai

Logela salgai. 1,35eko ohea, somierra (1,90), 2 mesanotxe, 4 kaxoi eta ispiludun tokadorea eta aulkia. Oso egoera onean. 480 euro. 20:00etatik aurrera deitu. 2 kortina eta lanpara 1 opari. 636370101.

Rossignol eskiak salgai, bas-toi eta fundarekin. Eskiak 1,75 neurrikoak. Oso gutxi erabiliak. Prezio negoziagarria. 629489914.

Gitarra elektrikoa salgai, Lag 'Roxane' markakoa; erdi mailako gitarrak, oso egoera onean. 628158142.

Karabana salgai, Roller. 5 plazakoa. 609601310.

Ura berotzeko berogailua salgai, Gasarekin funtzionatzen du. 670422051.

Jangelako altzariak salgai: mahaia, 6 aulki eta bitrinadun armarioa. Onak. Prezio interesgarria. 943087907. Eguerdian edo iluntzean deitu.

Elurretako kateak salgai, Spiker-spider. 943085206.

Zurezko sehaska salgai. Oso egoera onean. 125 euro. 20:00etatik 22:00etara deitu. 655731279.

Komuneko altzariak salgai. Zuriak eta gereziando kolorekoak. Oso egoera onean. 943085206.

Ordenagailua, Windows XP, salgai. 3 urtekoa. 675710799.

Sofa berri-berria salgai. 'Txafan' edo 'Eskiner' deitzen zaie. Urtebete dauka. 700 euro. 667326707 (arratsaldez).

LANA

eskaerak

Jantzigintza industrialera ko langilea behar da Zaldibian. Astelehenetik ostiralera, 7,30etatik 12,30etara. Ezinbestekoa da makinaz josten jakitea. 943162230.

Zerbitzaria behar da jatetxe baterako. 943882893.

Emakume heldua behar da goizez etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 692715029.

Sagardotegirako pertsona bat behar da, ondoko egun hauetan lan egiteko: astelehenetan, hilean bi larunbat gaueetan eta jai batzutan. 615700408.

Udan, goizez, etxeko lanak egiteko neska bat behar da. Ibilailua beharrezkoa da. 943801088.

Etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, kotxearekin. 670208831 - 943887187.

Tabernaria behar da Ordiziako taberna batean lan egiteko. Ahal bada euskalduna eta esperientziaduna. Langilea. 687609093.

Gabinete psikopedagogikoak lizentziatua behar du ikasketak oztupoetan aritua. Bidali kurrikulumak, Ordiziako 61. posta-kutxara.

eskaintzak

Sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest dago emakumezkoa. Esperientziaduna. 664266989.

Enpresaritzan lizentziatutako neska bulegoko lanak egiteko prest dago. 610369746.

Neska gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin edo adineko pertsonak zaintzeko. 610369746.

Emakumezkoa prest dago, ontziak garbitzeko, tabernak garbitzeko, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. 630254643.

Errumaniar emakumezkoa edozein lan egiteko prest dago, Ordizian, astelehenetik ostiralera, goizeko 8etatik arratsaldeko 6etara. 687036580. Paperak arautuak.

Emakumezkoa prest dago gauetan adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. 616889923.

Emakumezkoa, ibilgailuarekin, prest dago garbiketarako, adineko pertsonak zaintzeko edo mezulari lanerako. 678781985 - 943027226.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

Ikaskide irakaskuntza zerbitzuak	INGELERA MINTZA PRAKTIKA
Joan Iturralde, 5 943 160 120 Beasain www.ikaskide.net	✓ Maila guztiak ✓ Talde txikiak ✓ Cambridge azterketak: KET, PET, FIRST CERTIFICATE...

Z	Zunzunegi <i>Oinetakoak</i>
Hirigoien, 8A LAZKAO 943 087 913	

 GUKlan BAINUKO OSAGAIK BEROGINTZA ITURGINTZA GASA	
Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933 Nafarroa Etorbidea, 27 BEASAIN	Tailerra: Okorro, 6 ORDIZIA

 mazda	☎ 943 889 296
Bikar, S. A.	Faxa: 943 887 952
	N-1 errep. 419 Kma BEASAIN
	



Zegamako gaztetxoak 1989an

1975. urtean jaiotako zegamarrak dira argazkikoak. 1989ko apirilaren 25ean, 8. mailan zeudenean, Pausok programan irabazitako txirrinduariakin.

Zutik, ezkerretik eskuinera: Maider Zabaleta, Maite Larrea, Argider Egimendia, Karmele Berasategi, Olatz Okaña, Leire Ormazabal, Ainhoa Urbizu, Arrate Igoa, Nagore Martin, Iñaki Aramendia, Damian Ariztimuño, Alaitz Zubizarreta eta Iker Gereñu.

Eserita: Iker Alzelai, Asier Elizegi, Asier Landa, Iker Elorza, Ander Mujika eta Xabier Gereñu.

<p>Ikaskide irakaskuntza zerbitzuak</p> <p>Joan Iturralde, 5 solairuartea 943 160 120 Beasain ikaskide@ikaskide.net www.ikaskide.net</p>	<p>ESKOLA LAGUNTZA INFORMATIKA INGELERA</p> <p>ENPRESARITZA: ✓ Finantza matematika ✓ Estatistika ✓ Kontabilitatea ✓ Kalkulua, etab.</p>
---	---

	<p>GERTU ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK</p> <p>San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33 gertu@gertuasesores.com</p>
---	--



Iñausti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zoki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



MUJIKA 19

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ZALBIDE
TOLARE
SAGAR DOTEGIA



ESKOLA KRISTAUA

PARTE HARTZEKO
KUDEAKETA

EUSKALDUNA

PEDAGOGIKOKI ITZELA

BERRITZAILEAK



Jangela



Eskola garraioa



Hautzaindegi
zerbitzua

ANDRE MARI KALEA, 2 20200 BEASAIN Tfno.: 943 880 139 Isallesjb@planalfa.es




zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

E W M E



Nafarroa etorbidea, 14
Beasain T 943 88 31 10
www.argioptika.com

realtone



Haurtzaindegia (0-3), ludoteka eta jangela.

Urte guztian zabalik (abuztuan salbu).
Hezkuntza proiektuan txertatutako
proiektua. CAF-eko langileentzat
%20ko beherapena. Eusko Jaurlaritzak
familientzako bideratzen dituen
laguntzetako bitartekari.



Mundua irakurtzen, interpretatzen eta sortzen

erakusteko, euskaltzale eta eleanitz
izango diren ikasleak. Ingelesa 4
urtetik aurrera. Lehen Hezkuntza 4.
mailatik aurrera frantsesa.



Izateko sortu eta sortzeko

izan. Irakurketa-idazketa, matematika
eta oro har edukietan trebatzeaz gain
harremanetan eta sormenean eragiten
duen irakaskuntza. Egoten eta egiten
ikasteko.



Matrikula-kanpainako aurkezpen datak:

Otsailaren 8an, arratsaldeko 6etan.
Beste egun batean nahi izanez
gero, aldez aurretik deitu.
Aurkezpen egunean, haurtzaindegia
zerbitzua izango da.